

EuskarAbentura, Jzioqui dugu; bideak pizten

2018ko uztailean Euskal Herriko herrialde guztiak zeharkatuko dituen espedizio gaztea aurkeztu du EuskarAbentura elkarteak. Done Jakue bideak jarraituz eta Unescok izendatutako gizateriaren ondareetatik igaroaz, 16-17 urteko 120 gaztek esperientzia ahaztezina biziko dute datorren udan.

Ruta Quetzal izandakoak inspiratuta jaio da *EuskarAbentura* egitasmoa **16 eta 17 urteko gazte euskaldunei** dago zuzendua, hau da, **2001-2002 urtean jaiotakoei**. EuskarAbenturako kide den Irati Labaienek adierazi bezala, adin-tarte hau da, batez ere “*gauzak deskubritzen eta heldutasunean definituko gaituzten esperientziak bizitzen ditugun momentua. Gainera gazte garaian harreman berri asko egiten dira eta oso garrantzitsua da harreman horietako hizkuntza ohituretan eragitea*”.

Euskal Herriko **7 herrialde**tako eta **diasporako gazteek** osatuko dute espedizio taldea. Euskaraz dakien edozein gaztek hartu dezake parte, edozein duelarik jatorria. **Ez da matrikula-kuotarik ordaindu beharko.**

Espedizioa uztailaren lehen abiatuko da Mauletik, Done Jakue bidearen ibilbide Frantsesa jarraituz, Donibane Garazi eta Iruñatik igaro eta Vianaraino. Bertatik autobus batek Donemiliaga Kukulara eramango ditu abenturazaleak. Bertan orain arte aurkitu diren euskarazko idazki zaharrenak ikusi ahal izango dituzte. Hain zuzen ere, bertan agertutako esaldietako bat- *jizioqui dugu*- da EuskarAbenturaren aurkezpen gutuna, Iker Goñik azaldu bezala “*glosak ezagutzera emateaz gain egitasmoaren izpirituarekin oso bat datorrelako: piztuko dugu; bidea piztu, hizkuntza piztu, etorkizun diren gazteak piztu*”.

Donemiliagatik Añana Gatzagara igo eta Barnealdeko bidea kontrako norabidean egingo da Iruneraino. Trenez Baionara igo eta handik Kostaldeko ibilbidetik jarraituko da, Kantauri kostalde guztia zeharkatuz, Getxoko Bizkaia zubian amaitzeko, uztailaren 31n. Espedizioa Euskal Herrian kokatzen diren **Unescok izendatutako gizateriaren ondare guztietatik pasako da: Done Jakue bidea, Santimamiñeko kobazuloak, Ekaingo leizeak, Altxerriko kobak eta Bizkaia**ko zubia.

Parte hartzeko **izen-emate inprimakia** betetzearekin batera gazteek **motibazio gutuna eta lan bat bidali beharko dituzte**. Lana egiteko **hiru gai orokor** daude aukeran, era librean landu ahal direnak: *Euskara & zure herria*, *Euskara & emakumeak* eta *Euskara & itsasoa*. Goñik azpimarratu bezala “*talentu ezberdineko gazteak erakartzeko*” asmoz, elkarteak **bost motako lanak** jasoko ditu: historikoa, literarioa, plastikoa, musikala eta ikus-entzunezkoa. Izen-emate eta lanen bidalketa www.euskarabentura.eus webgunearen bitartez egingo da eta horretarako **epea martxoaren 18an bukatuko da**. Lanak Eusko Ikaskuntzarekin elkarlanean ebaluatuko dira eta lan onenen egileek espedizio-beka lortuko dute. Apirilaren 16an argitaratuko da abenturan parte hartuko duten 120 gazteen zerrenda.

Euskal Herriko txoko desberdinetako hamaika lagunek osatzen dute *EuskarAbenturaren* talde sustatzailea. Euskararen normalizazioan eragiteko helburuz ekin zioten lanari “*gazteen artean euskararen erabileran eragiteko gure aletxoak jartzeko borondatez*” Iker Goñikzehaztu bezala. “*Eta egikaritzeko aukeratutako unea ez da edozein. Izan ere 2018a Euskaraldiaren urtea izango da, kointzidentzia ezin hobea, EuskarAbenturak hiztun gazteen aktibazioan bete-betean eragin nahi duelako*” gaineratu du Goñik. Horrez gain, *EuskarAbenturak* baditu **beste helburu batzuk: euskal lurraldearen ezagutzan sakontzea, gazte euskaldunen sarea osatzea eta, antolatzaileen ustez, positiboak diren zeharkako beste balio batzuk transmitzea**; hala nola, bizikidetzeta, ingurumenaren errespetua, genero berdintasuna, bizi ohitura osasuntsuak... Eta, batez ere, gazte horiek, bakoitza bere inguruan, abenturan zehar jasotako guztiaren zabaltzaile eta eragile izatea. Aipatu helburuak erdiesteko protokolo desberdinak jarriko dira martxan.

www.euskarabentura.eus webgunean jasota daude parte hartzeko jarraibide zehatzak eta egitasmoari buruzko informazio guztia.

EuskarAbentura comienza su andadura

Una expedición de jóvenes atravesará todos los territorios de Euskal Herria en julio del 2018, de la mano de la asociación EuskarAbentura. El próximo verano 120 jóvenes de 16-17 años tendrán la oportunidad de vivir esta experiencia inolvidable siguiendo los Caminos de Santiago y pasando por lugares nombrados patrimonio de la humanidad por la Unesco.

EuskarAbentura nace inspirada por la que fue la Ruta Quetzal. La aventura está dirigida a **jóvenes de 16 y 17 años, es decir, nacidos en 2001-2002**. Según Irati Labaien, miembro de EuskarAbentura, es en estas edades cuando *“es el momento de descubrir el mundo y de vivir las experiencias que nos definirán como adultos. Además durante la juventud se forjan muchas nuevas amistades y relaciones y es muy importante incidir en las costumbres lingüísticas que de ellas se derivan”*.

El grupo expedicionario estará formado por **jóvenes de los 7 territorios y de la diáspora**, sin importar su lugar de origen. Cualquier joven que hable euskera podrá participar **sin necesidad de pagar ninguna tasa de inscripción**.

La expedición se pondrá en marcha el 1 de julio desde Mauleón, siguiendo el Camino Francés, pasando por Donibane Garazi, Pamplona y hasta Viana. Desde allí, se irá en autobús hasta San Millán de la Cogolla donde se visitarán los escritos en euskera más antiguos que se han encontrado hasta el momento. Una de esas inscripciones *-jzioqui dugu-* es precisamente la carta de presentación de EuskarAbentura, ya que, según explica Iker Goñi, *“además de dar a conocer las glosas, su significado coincide absolutamente con el espíritu de la iniciativa: vamos a prender la chispa, a alumbrar el camino, a encender el idioma, a los y las jóvenes que serán nuestro futuro”*.

De San Millán se subirá a Salinas de Añana, desde donde se iniciará la segunda parte del recorrido, realizando en sentido inverso el Camino del Interior hasta Irún. Se viajará en tren hasta Baiona para continuar por el Camino del Norte para terminar en el puente de Vizcaya, en Getxo, el 31 de julio. A lo largo del trayecto el grupo **visitará todos los lugares nombrados patrimonio de la humanidad por la Unesco que se encuentran en Euskal Herria: el Camino de Santiago, las cuevas de Santimamiñe, las de Ekain y las de Altxerri y el puente de Vizcaya.**

Para inscribirse será necesario, junto con el formulario de inscripción debidamente completado, enviar una carta de motivación y un trabajo, para el que se proponen tres temas posibles, temas abiertos de libre interpretación: “El euskera y tu pueblo”, “El euskera y las mujeres” y “El euskera y el mar”. Con la intención de *“atraer a jóvenes con talentos diferentes”*, precisa Iker Goñi, la asociación recogerá **5 modalidades de trabajos**: histórico, literario, plástico, musical y audiovisual. La inscripción podrá realizarse a través de la web www.euskarabentura.eus y **el plazo para hacerlo finalizara el 18 de marzo**. Eusko Ikaskuntza colaborará en el proceso de corrección y evaluación de los trabajos y a los autores de los proyectos seleccionados se les concederá la beca para la expedición. El 16 de abril se hará pública la lista de los 120 jóvenes que participarán en la aventura.

EuskarAbentura se compone de miembros procedentes de muy diversos rincones de Euskal Herria que comenzaron a trabajar en favor de la normalización del euskera *“con la intención de aportar nuestro granito de arena promocionando el uso del euskera entre la gente joven”*. Y la fecha elegida no es fruto del azar: *“El 2018 será el año del Euskaraldia, una afortunada casualidad, ya que EuskarAbentura quiere ayudar a la activación lingüística de la juventud”* añade Goñi. Pero **EuskarAbentura se plantea también otros objetivos: conocer mejor el territorio del euskera, crear una red de jóvenes euskaldunes y promover valores transversales que la organización considera positivos, tales como la convivencia, el respeto al medio ambiente, la igualdad de género, hábitos de vida saludables...** Y sobre todo, conseguir que esos jóvenes transmitan, cada uno en su entorno, todo aquello que han recibido de *EuskarAbentura*. Para garantizar los objetivos anteriormente mencionados se redactarán y pondrán en práctica diferentes protocolos.

Más información sobre la expedición y todos los detalles sobre cómo participar en www.euskarabentura.eus.

Info +: info@euskarabentura.eus / 688 60 37 99